

MARKETING ARIKETAK PREZIOAREN KALKULUA ENPRESA EKONOMIA SARRERA T.31

MARKETING ARIKETAK 1.1

Zigarre, zigarro elektronikoak saltzen hastea pentsatzen ari den enpresa da. Zigarreren jabeak kostuak estali nahi ditu zigarroen salmentaren bidez eta mozkinak sortu kontsumigarrien (berriz kargatu ezin daitezkeen kartutxoak, aukerazko zapoak, dosi eta lurrin desberdinetan) salmenta dela medio. Kontsumigarri bakoitzaren fabrikaziokostua unitate bakoitzeko 2 eurokoa da.

Zigarro elektronikoek zenbait zati dituzte (ahokoa, sentsorea, led argia, berriz betetzen den bateria...). Pieza guztien kostua zigarro elektroniko bakoitzeko 12 eurokoa da.

Horrez gain, enpresak hileroko hainbat gastu ditu, hala nola, zigarroak ekoizten eta biltegitratzen diren lokalaren alokera, enpresan lan egiten duten bi pertsonen soldatak, materialaren alokairua eta beste batzuk. Guzti horiek 6.500 euroko kostua sortzen dute hileroko, eta demagun erdia eta erdia egozten diegula zigarroei eta kontsumigarriei.

- 1) Zein da zigarro elektronikoei jarri ahal dien gutxieneko prezioa? (0,2 puntu)**
- 2) Zein da Zigarrek kontsumigarriei ezarri beharreko prezioa, lehenengo hilabetean 16.000 kontsumigarri saltzeko aurreikuspena egin badu eta salmenta-prezioaren gaineko % 50eko marjina lortu nahi badu? (0,2 puntu)**
- 3) Eta unitateko kostu osoen gaineko % 100eko marjina lortu nahi izanez gero? (0,2 puntu)**
- 4) Zein izango litzateke lehen urteko puntu geldia edo lokagunea, b) galderan lortzen den helburu-prezioarentzako? (0,2 puntu)**
- 5) Azkenik, 1.000 zigarro elektroniko salduko balitu a) galderako prezioan eta 16.000 kontsumigarri b)ko prezioan, zein emaitza bateratu lortuko luke enpresak lehen hilabete horretan? (0,2 puntu)**

MARKETING ARIKETAK 2.2

Kafetegi batek 100 kafe eguneko saldu ditzakeela kalkulatu du. Kafe bakoitzaren kostua 0.5€ da. Kafeei egozten zaion kafetegiko langilearen kostua, eguneko, 40€ da, eta beste gastu batzuen (zergak, alokera...) 20€ eguneko. Kafearen kostua izan ezik, beste gastu guztiak finkoak dira.

- 1) Zein izan beharko litzateke kafearen prezioa unitate bakoitzeko kostu osoen gaineko %55-eko marjina lortzeko?**
- 2) Zein izan beharko litzateke kafearen prezioa prezio honen gaineko %40-ko marjina lortzeko?**
- 3) Zein litzateke prezio teknikoa?**
- 4) Zein litzateke prezio minimoa?**
- 5) Merkatu prezioa (beste kafetegi guztiek jartzen duten prezioa) 1.3€ bada, zenbat kafe saldu beharko litzateke prezio horretan dirurik ez galtzeko?**

MARKETING ARIKETAK 1.3

Brikolaje-denda batek Gabonetako salmenta arorako brikolajerako maletatxo bat merkaturatu nahi du. Maletatxo honek zulagailu bat, bihurkin kolpekari bat, mailu bat, 4 barauts (broka) eta 4 torlojutzeko punta dauzka.

Enpresarentzat maletatxo bakoitzaren erosketa kostua 30€ da (hutsik), eta zulagailua, bihurkin kolpekaria, mailua, barautsak eta torlojutzeko puntak pack batean datoz, bere kostua 90€ izanik. Kostu hauei beste %5 bat gehitu behar zaie, Gabonetako enbalaje bereziagatik. Jabeek produktu honi beren kostu finkoen % 6 egozten diote, kostu finko osoak 35.000€ izanik.

ESKATZEN DA:

- 1) Gabonetako salmenta aroan 100 maletatxo saltzea espero bada, dendako jabeek zein preziotan saldu beharko lituzkete prezioaren gainean %15ko marjina lortu nahi balute? %15eko marjina kostu osoen gainean balitz, prezioa handiagoa izango al litzateke? Arrazoitu zure erantzuna.
- 2) Prezioa prezioaren gaineko %15ko marjina ematen duena bada, zenbat maletatxo saldu beharko lituzkete dirurik ez galtzeko?
- 3) Kalkulatu produktu honen prezio teknikoa eta prezio minimoa. Adierazi bi kontzeptuak.

MARKETING ARIKETAK 1.4

Opari denda batek 100 koadroentzako marko erosi ditu eta eskuratze prezio unitarioa 20 eurokoa izan da. Negozioaren kostu finkoak 50.000 euro badira eta horietatik % 5 markoei badagokie,

- 1) zein litzateke marko bakoitzaren salneurria, salneurriaren gaineko % 40 marjina lortzeko?
- 2) Aurreko kasuari buruzko honako baieztapen hauetatik zein da zuzena?
 - a. Marko baten helburu prezioa 45 € da.
 - b. Marko baten prezio teknikoa 20 € da.
 - c. Lokagunea helburu preziorako 45 marko
 - d. Marko baten prezioa minimoa 45 € da.
 - e. Aurrekoetatik bat ere ez.

MARKETING ARIKETAK 1.5

Hondartzako txosna batek ogitartekoak saltzen ditu eta egunean 200 sal ditzakela kalkulatzen du. Ogitarteko bakoitza egiteko osagaiak 1 euro kostatzen zaizkio. Txosnako langileari egunean 70 euro ordaintzen zaizkio, eta zergak, alokairua eta beste batzuk 30 euro dira eguneko. Ogitartekoaren osagaiak izan ezik, gainerako guztiak kostu finkoak dira.

- 1) Kalkulatu ezarri beharreko prezioa, kostu oso unitarioen gain % 60ko marjina lortu nahi bada.
- 2) Kalkulatu ezarri beharreko prezioa, azken prezioaren gain % 60ko marjina lortu nahi bada.
- 3) Kalkulatu prezio teknikoa.
- 4) Haren inguruan dauden txosna guztiak prezioak jaitsiko balituzte, zein da txosna honek jar dezakeen preziorik baxuena, jakinik kostu finkoak uda osoan zehar ordaindu behar direla?
- 5) Gainerako txosnek ogitartekoak 2,5 eurotan saltzen badituzte, zenbat ogitarteko saldu behar lituzke prezio horretan (lehiakedeetan oinarrituta) dirurik ez galtzeko?

MARKETING ARIKETAK 1.6

Ikus-entzunezko produktuak saltzen dituen denda batek bere produktu-gaman honako hau barneratu du: edozein telebista smartTV batean bihurtzeko egokigailu bat, izan ere, bezeroek mota horretako telebistak zenbat eta gehiago erabiltzen dituzte. Egokigailu horren unitateko kostua 60 eurokoa da; horri unitateko % 20ko kostu gehigarri bat gehitu behar zaio eskaeraren kudeaketa eta garraioa direla eta. Egokigailu baten Publikoarentzako Salmenta-Prezioa (PSP) 120 eurokoa da baina udaberriko kanpainarako unitate bakoitza 90 eurotan salduko da. Dendaren jabearen arabera dituen 22.000 euroko kostu finko guztien artean % 5 produktu horri dagozkio.

- 1) Zein litzateke egokigailuaren kostu minimoa udaberriko kanpainan?
- 2) Zein litzateke helburutzat jarri beharreko prezioa, jabeak 30 egokigailuko eskabide bat egiten badu eta prezioaren gaineko % 10ko marjina lortu nahi badu? Borobildu prezioa goiko unitatera.
- 3) Hornitzaileak dendari egokigailu bakoitzeko unitate kostuaren gaineko %15eko deskontua eskainiko balio (baina garraio eta gestio kostuak hasierako prezioaren gainean, hau da, 60) eta 50 egokigailu erosiko balitu, zein litzateke prezio teknikoa?